



JANGELAKO
ANTOLAKETA

2020 URRIA - 2021 MAIATZA

PROTOKOLOA

- Iraila hasieran jangelarako **protokolo berezia** egin zen, Covid-19a dela eta. Ikastolako protokolo orokorrean oinarritua.
- Jangelako ohiko jardueretan **gela** da talde egonkorra: bazkaltzerakoan, komunetan, irteera-sarreretan eta kanpoko eremuetan.
- Higieneari eta portaerari buruzko **prebentzio-neurriak**: eskuen higiena, komunaren erabilpena, tresneria, joan-etorriak... e,a.
- 6 urtetik gorako ikasle guztiek **nahitaez maskara** erabiliko dute.
- Jangelako arduradunak ikastolako Covid-19ko arduradunarekin **etengabeko harremana** izango du sortu daitezkeen kasuak modu egokian kudeatzeko.

BAZKALTIAKOPURUA

*Iraila

MEABE	BIDEBIETA	LAUBIDIETA
74 IKASLE (6 begirale)	33 IKASLE (3 begirale)	190 IKASLE (8 begirale)
GUZTIRA		297 bazkaltiar
		17 begirale

*Urria-maiatza

MEABE	BIDEBIETA	LAUBIDIETA
139 IKASLE (11 begirale)	42 IKASLE (3 begirale)	289 IKASLE (10 begirale)
GUZTIRA		470 bazkaltiar
		24 begirale

ANTOLAKETA

Meabe

- HH2-4 urteko ikasleek **goiko jangelan** bazkalduko dute (udan obrak egin ziren jangela handitzeko).
- HH3 urteko ikasleek **jangela ondoko gela batean** bazkalduko dute.

Bidebieta

- HH5 urteko ikasle guztiek jangelan bazkalduko dute.

Laubidieta

Hiru txanda egingo dira:

- Lehenengo txanda: LH1-2 mailako ikasleek bazkalduko dute, eguerdiko 12:15etatik 13:00etara
- Bigarren txanda: LH3-4 mailako ikasleek bazkalduko dute 13:00etatik 13:45etara
- Hirugarren txanda: LH5-6 mailako ikasleek bazkalduko dute 13:45etatik 14:30etara

JANGELAKO DINAMIKA

- Begiraleek gelan jasoko dituzte ikasleak, taldeka. Kokapenaren arabera eta dagokien bidea errespetatuz sartuko dira jangelan. Gela bat sartu arte ezin du hurrengoak sartu. (Laubidietan, adibidez, fondoan esertzen direnak lehenengo sartuko dira).
- Ikasleak **leku berean** eseriko dira beti. Plantilla batean jasoko da **ikasleen kokapena**.
- Jangelara joan aurretik **eskuen garbiketa** irakaslearen ardura izango da.
- Gelaka eseriko dira. Gela batetik bestera **mahai libre bat** utziko da (Laubidietan) edo mahaiak, distantziak errespetatuz, kokatuko dira (Meabe eta Bidebietan)
- Lehenengo platera zerbitzatzean kenduko dute **maskara**, eta bazkaria bukatutakoan berriz jarriko dute. Maskarak soka izateak asko laguntzen du.
- Ezin dituzte komunak diren gauzak ukitu (ur txarroa, ogia...). Zerbait behar izanez gero, begiraleari eskatuko diote.

- **Ikasleen ardurak** (platera eraman, mahaia garbitu, erratza pasa...) **bete gabe** geldituko dira, begiraleek eta officeko langileek egingo dituzte.
- Bazkaria bukatu ondoren gelara joango dira, eskuak garbitu eta dagokien eremura joango dira (Laubidietan). HH2-3 urtekoak etxera edo ikastolan siesta egingo dute. HH4-5 urtekoak atsedena eta ondoren jolastokira aterako dira.
- Jantoki-zerbitzua erabiltzen duten ikasleek ezin izango dute ikastolatik irten eskolaz kanpoko jarduerak egiteko.
- Etxean bazkaltzen dutenak 14:25ean sartuko dira barrura.

AISIALDIKO DINAMIKA

- Umeeek **ardura handiz** jokutzen dute (maskararen erabileran, joan-etorrietan, eremuetan...)
- **Eremuka banatu ditugu**, eta eremu bakoitza 3 zatitan banatuta dago (zati bakoitzean gela bat). Eguraldi txarreko egunetan, gelak eta komunak diren espazioak erabiliko ditugu: aterpea, musika gela...e,a.
- Sarrerak **modu mailakatuan** egingo dira, eta **eremuko zatiak aldatuko** dira asteka. (umeeek eskertzen dute).
- Iturria ezin denez erabili, **bakoitzak bere botila** aterako du eta hortik edango du. (Laubidietan). Meaben eta Bidebietan bakoitzak bere edalontzia edukiko du.

JANGELAKO LANGILEAK

- Jangelako langileek maskara **nahitaez** erabiliko dute espazio guztietan eta une oro.
- Langileen arteko **1,5 metroko segurtasun** tartea mantenduko da.
- Langileen arteko **kontaktu kopurua** murriztuko da.
- Officeko langileek **indar berezia** jarri dute lehenengo egunetik jangelaren garbiketan, desinfekzioan eta aireztapenean.
- Ikasle batek sintomak baditu, familiari **jakinaraziko** zaio, jangelako arduraduna edo begiralearen bitartez.

BIZIPENAK

- Jangelan bazkaltzen duten haurrak poliki-poliki egoera berrira (sarrera-irteerak, aisialdiko eremuak...) **egokitzen ari dira.**
- Prebentzio-neurriak **ikasten, barneratzen eta errespetatzen** ari dira, jarrera egokiarekin.
- Hasierako **kezkak** eta **beldurrak** ez dira hainbeste nabarmentzen.
- Jangelako langileek inplikazio handia erakutsi dute zerbitzua egoera berrira egokitzeko (bilerak, antolaketa, materiala...).
- Bakarkako familia-bileretan **jangelari buruz hitz egiteko tarte bat eskainiko** zaie gurasoei.

TRIPTIKOAK

- 2020-21 ikasturtetik aurrera Ausolan enpresak erabaki du menua azaltzen den **triptikorik ez** bidaltzea.
- **Emaitzez** bidaliko zaie familiei. *Menu bereziak eta informazioa paperan jasotzen duten familiei kopia bat egin eta eskura emango zaie.*
- **Interneten** ikusteko aukera dago.
- <https://menuak.ausolan.com/>

JANGELA-BATZORDEA